

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kolore festa

EZ DA HAINBESTE IDI IZANGO Herbehere osoetan, baina 6.000 aldaeratik gora dituzte idi-bihotzetan (*Tulipa sp.*). Han dago han, kolore festa, idi-bihotzen mundua. Zenbat mundu!

Hango negozio sarea ehunka urtetan ehuntzeko gaia Kurdistan aldetik ekarri, Turkian irun eta Istanbuldik barrena eramandako motak ziren. Idi-bihotz naturalak ondu eta hibridatuz gaurko bariedade edo

aldaera aukera izateko bideari ekin zitzaion, eta ez da egundo amaitu. Milaka aldaera erregistratuta edo bidean dago; etengabe sortuz eta, sartu edo atera, patente-etxetako atarietan. Adibidez, hona Japonian egindako "Arisa" aldaeraren historia. Idi-bihotz hau "On Kixote" eta "Ben van Zanten" aldaeren arteko hibridazioetik jaioa da. 1979an bien nahasketaren 955 hazi ale erein zituzten. Sei urtetan landu ondoren, landatzeko errazak, emaileak eta gaitzei kementsu aurre egiten zieten zortzi mota aukeratu zituzten. 1999an erregistroan onartzeko eskaera egin eta behar adina aztertu ondoren 2002an ametitu zuten. Noiznahi topatuko duzu bere aietan erostgai, loreak ertzetan mendela arrosa duten ardo koloreko petaloak ditu.



EDEBOCK

Idi-bihotz honek petaloaren ertz-ertza du kolore desberdin batekoa, baina ia-ia nahi ahalako nahasketak duena topa daiteke. Asko direnez, haien nahasketatik etengabe ezezagun gehiago datoz. Adibidez, petaloen kolore nagusia beheko barrenetik datorkion beste kolore bateko gar antzeko batekin "zikindua" dutenak. Horiei, deigarri, bolada ez zaie amaitzen. Ederki kosta zen, bada, zikintze berexi erakargarri

hori nola demontre egiten zen asmatzea. Birus batek eragiten du, I-BMB edo Idi-bihotzaren mosaikoren birusa denak. Birus hori zorriek, zizta hemen zizta han, hedatzen dute. Kolore garbiko lorea eman duenak hurrengo urtean nahastutakoa azal dezake. Nahasketarik gabeko motak mantendu nahi dituzten muintegietan-eta, zikindu horiek urruti jartzen dituzte, kutsadura

saihestu eta ahal den neurrian eragozteko. Zuriek eta horiek ez dute kolore aldaketa hori agertzen.

Gaur egun, hala ere, lorezaleen lanetik dator hone-lako idi-bihotz xeblebre asko. Eguna joan eta eguna etorri, antzeko makina bat historia idazten ari da. Ez gara, nolana ere, garai batean bezala, lore horiekin erotzen.



inguru
ABENTURA.COM

info@inguruabentura.com - 635 748 948

Descenso de Cañones, Espeleología, Puenting, Multiaventuras, Despedidas de solter@ y mucho mas...

Arroila Jaitsierak, Espeleología, Zubi saltoa, Multiabenturak, Ezkon aurreko agurrak eta askoz gehiago...